

Irrati bat jaiotzear Ermuan


Momentuz, Ermuko Euskal Irrati Askea bezala ezagutzen bada ere, izena eta beste hainbat gauza zehaztu gabe daude oraindik baina duela pare bat urte elkartu zen lagun taldearen egitasmoa aurrera doa.

2000ko uztaillean kolektibo eta talde ezberdinetan zeuden bost edo sei pertsona bildu ziren Ermuan, euskal irrati libre bat sortzeko asmoarekin. Irratia sortzeko beharra ikusten baitzen. Hots, komunikabide libre, alternatibo eta independente bat sortzeko beharra. Izan ere, telebista bazegoen orduan, aldizkaria ere eta Irratia falta zenez egitasmoa martxan jartzeko lehenengo urratsekin hasi ziren. Horretarako, beste herri batzuetako irrati libreekin ere izan dute harremana. Gasteizko Hala Bedi irratiarekin, Elgoibarko Zazpiki irratiarekin, Eibarkoekin, Elorrikoarekin besteak beste. Hauen esperientzia ezagutu eta hauen gandik ikasteko.

Irratia euskaraz

Proiektuaren helburua ez da beste komunikabide batzuekin konpetitzea, beste komunikabide bat sortzea baizik, ideia berriak dituen eta beste ikuspuntu bat izango duena. Oraingo komunikabideen gabeziak betetzea dela helburuetakotzat diote sortzaileek: "Esaterako, gizartean marjinauak dauden hainbat talde edo kolektiboei leku bat egitea, beste komunikabideetan agertzen ez direnei alegia. Printzipioz Ermuko eta Euskal Herriko talde ezberdinei zabalduta dago, baina ez dugu aukerarik baztertzeko". Euskaraz egin nahi da baina Ermuan dauden beste komunitate batzuek baztertu gabe. Beste hizkuntza batzuk erabiltzen badira ere, euskararen presentzia handiagoa izango litzateke beti.

Sei edo zazpi pertsonak osotzen duten lan talde honen asmoa, erabakiak hartzerako orduan, asanbladaren bidez funtzionatzea izango litzateke. Hala ere, beste aukerarik ez dagoenean, gehien-



goak erabakiko lukeela azpimarratu dute eta lana bolondresen bidez egingo litzatekeela aipatu dute.

Finantziario bideak kontuan hartuz, ahal izanez gero, ez litzateke, publizitaterik ezta diru-laguntza ofizialik erabiliko. Hala ere, urtero, eta aurten bigarren urtez Santixauetan jarri den txosnarekin jarraituko dute aurrerantzean. Bestalde, irratia martxan dagoenean bazkideak lortu nahi dituzte, erriak aterako lirateke, arropa eta material ezberdina saldu, urtean zehar dauden gastuei aurre egiteko.

Rock Kontzertua

Azaroaren 2an Aritzemendi pilotalekuan kontzertua egingo da irratia eratzeko. S.A., Berri Txarrak, Ekon eta Nuevo Catécismo Católico taldeekin. Kontzertuaren arabera, hainbat

erabaki hartzea posible izango da, diru kopuru handia baitago jokoan eta data bat jartzekotan udaberri edo uda aldera irratia montatuta egongo litzatekeela esan digute.


Kontzertuaz gain beste ekintza batzuk ere badaude. Urriaren 29an arratsaldeko 19:30ean Udal liburutegian hitzaldia izango da. "Gure gauzak, geuk, geure erara" izenburuarekin. Urriaren 30ean arratsaldeko 19:30ean eta Udal liburutegian bideo emanaldia eta azaroaren 2an kontzertua. Sarrerak ohiko lekuetan egongo dira salgai. 9 Eurotan aurretik erosiz gero eta 12 Eurotan takilan bertan. Hala ere, kontzertua atsegin ez dutenek baina proiektuaren alde eta laguntzeko prest daudenek 3 Eurotan sarrera berezia, 0 hilara, eros dezakete taibernetan.

Alazne Aiestaran



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**



MUGA



KIKLOAK

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA